



El Departamento de Turismo pone a disposición de la ciudadanía una herramienta interactiva para consultar los comercios esenciales abiertos en Euskadi

El Departamento de Turismo, Comercio y Consumo del Gobierno Vasco en colaboración con las Asociaciones y Federaciones de comercio de Euskadi han puesto a disposición de la ciudadanía una herramienta digital que permite la consulta de un listado de establecimientos que ofrecen servicios esenciales en modalidad presencial o telemática en el marco de las medidas del Decreto de Alarma COVID19.

Más de cinco mil establecimientos de Euskadi están en estos momentos ofreciendo servicios y productos considerados esenciales por el Real Decreto de estado de alarma. Entre estos se encuentran los comercios de alimentación, bebidas, productos y bienes de primera necesidad, las farmacias, establecimientos médicos y sanitarios, ópticas y productos ortopédicos, productos higiénicos, quioscos y papelerías, gasolineras y áreas de servicio para atender a transportistas, estancos, de venta de equipos tecnológicos y de telecomunicaciones, alimentos para animales de compañía, comercio por internet, telefónico o correspondencia, así como venta a domicilio de comidas, tintorerías y lavanderías. Para aquellas operaciones de urgencia también puede ofrecer servicio los talleres mecánicos

La herramienta, que puede consultarse en la web del Gobierno así como en sus redes sociales, permite la consulta de mapa interactivo en el que se ha recopilado información sobre los establecimientos que permanecen abiertos y aquellos que hacen reparto a domicilio. El mapa será actualizado constantemente y disponible en todo momento para nuevas incorporaciones.

Este mapa se actualiza de manera constante permite ver la totalidad de comercios o bien seleccionar por cercanía, por sector o por servicio a domicilio.

El mapa permite observar que, en prácticamente todo el territorio, se ofrece la posibilidad de acceder a comercios abiertos. La forma de contacto más habitual de contacto con los clientes sigue siendo el teléfono. También aquellos establecimientos que realizan su oferta de manera no presencial (asesorías, restaurantes con servicio de comida a domicilio, etc) permiten acceder a su servicio vía web o por correo electrónico.

En estos momentos los establecimientos de alimentación, distribución y todo el conjunto de sus personas trabajadoras están desempeñando una función de utilidad pública que debe ser reconocida, respetada por las personas consumidoras. El comercio de proximidad, a pie de calle, en barrios y pueblos se ha revelado como esencial para mantener una cadena de suministro ordenada de los bienes y servicios.

El Departamento está en constante contacto con su sector para transmitirles todo su apoyo. Se ha puesto a su disposición toda la información sobre las medidas del real decreto para el comercio y la hostelería; recopilación de las ayudas y todo lo que pueda protegerles ante esta situación.

Mas información:

<https://www.irekia.euskadi.eus/es/news/61397-departamento-turismo-pone-disposicion-ciudadania-una-herramienta-interactiva-para-consultar-los-comercios-esenciales-abiertos-euskadi>

Turismo Sailak erreminta interaktibo bat jarri du herritarren eskueran Euskal Autonomia Erkidegoan irekita dauden oinarrizko saltokiak kontsultatzeko

Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, Euskadiko Merkataritza Elkarte eta Federazioekin lankidetzan, erreminta digital berri bat jarri du herritarren eskueran; haren bidez, COVID19aren Alarma Dekretuko neurrien arabera oinarrizko zerbitzuak aurrez aurre edo telematikaz eskaintzen dituzten establezimenduen zerrenda kontsulta daiteke.

Euskal Autonomia Erkidegoko bost mila establezimendu baino gehiago alarma-egoerako Errege Dekretuak oinarrizkotzat hartu zituen zerbitzuak eta produktuak eskaintzen ari dira. Horien artean daude elikagaien, edarien eta premia biziko gaien dendak, farmaziak, osasun-zentroak, optikak zein ortopedia-dendak, produktu higienikoen saltokiak, kioskoak eta paper-dendak, gasolindegia eta garraiolariak artatzeko zerbitzuguneak, tabako-dendak, teknologia- eta telekomunikazio-ekipamenduen salmentarakoak, etxeko abereen elikagaien dendak, internet, telefono edo posta bidezko merkataritza, eta etxez etxeko janari-salmenta, tindategiak eta garbitegiak. Urgentziako kasuetarako, tailer mekanikoek ere zerbitzua eman dezakete.

Erreminta Eusko Jaurlaritzaren webgunean eta haren sare sozialetan kontsulta daiteke. Mapa interaktibo bat kontsultatzeko aukera ematen du, eta irekita dauden eta etxez etxeko banaketa egiten duten establezimenduen inguruko informazioa erakusten du. Mapa etengabe eguneratzen da, eta prest dago uneoro berritasunak gehitzeko.

Etengabe eguneratzen den mapa horrek saltoki guztiak ikusteko balio du, edo are, horiek hurbiltasunaren, sektorearen edo etxez etxeko zerbitzuaren arabera aukeratzeko.

Maparen bidez, ikus daiteke ia lurralde osoan daudela erabil daitezkeen saltoki irekiak. Bezeroekin harremanetan jartzeko modu ohikoena telefonoa da artean ere. Gainera, aurrez aurreko eskaintza ez duten establezimenduek (aholkularitzak,

etxez etxeko janari-zerbitzua duten jatetxeak, etab.) webgunearen edo posta elektronikoa bidez eskaintzen dute zerbitzua.

Une hauetan, elikagaien saltokiak, banaketa eta horietako pertsona langile guztiak onura publikorako ari dira lanean, eta eskertu behar zaie, pertsona kontsumitzaileek hori errespetatu behar dute. Hurbileko merkataritzak, gure kale, auzo eta herrietan, agerian utzi du oinarrizkoa dela ondasun eta zerbitzuen katea ordena osoz hornitzen jarraitzeko.

Gure Saila etengabe dabil harremanetan bere sektorearekin, hari gure babes osoa helarazteko. Haien eskueran informazio hauxe jarri dugu: merkataritza eta ostalaritzarako Errege Dekretuaren neurriak, laguntzen bilduma eta egoera honen aurrean babesa eman diezaiekeen guztia.

Argibideetarako:

<https://www.irekia.euskadi.eus/es/news/61397-departamento-turismo-pone-disposicion-ciudadania-una-herramienta-interactiva-para-consultar-los-comercios-esenciales-abiertos-euskadi>